

Zihaurria

INTSUSA mirakuluzkoaren loraldia baliatu al dugu? Bere lore ginbailen siropa edo ardoa edo dena delakoa egiteko sasoia joan da. Aurten eguraldiak ibili duen bisajearekin, sekula baino beranduago eta luzeago ireki ditu lore gozoak intsusak (*Sambucus nigra*).

Geroxeago irekitzen ditu bere bestengusuak, zihaurriak (*Sambucus ebulus*). Garai batean, erruz erabili izan da osasungintzan. Beste xede mordo baten artean hanturak baretzeko eta makatuak gozatzeko: maila-maila egin hostoak, ardotan egosi eta txaplata gisara jarri. Ardotarrak ditugu *Sambucus* generokoak...

WILLOW-CC BY SA



Zihaurria, *Sambucus ebulus*.

Adi ibili, ordea, ardozale! Intsusa ezin hobea bada, zihaurriak min egin dezake. Lehen, arinkeriaino arin erabili izan bada ere, kalte larriak eragin ditzakeela badakigu gaur. Fruitu kokkorra pozoitsua da oso, eta landarearen beste zatiek ere gorabehera latzak sor ditzakete.

Baten loraldiaren amaiera eta bestearenaren hasiera gertatzen ari den honetan, bien arteko aldeak ezagutzeak kalterik ez. Hona nabarmenenak. Intsusa zurezko enborra duen zuhaixka egiten da, zihaurria ez, urtero desegiten da, eta lurpeko sustrai lodietan metatutako gordekinetatik berritu.

Loreetan ere badute aldeak: maiatz aldera loratzen da intsusa eta petaloak larriak ditu; uztail-abuztuan zihaurriak irekitzen dituen lorearen petalo zuriak ertzean gorritz zipriztinduak dira, eta barruko anterak, ardo kolorekoak. Intsusa renak

usain fina du, bestearenak kiratsa. Fruitu kokkorak multzotan garatzen dituzte biek, makurtutako zintzilikarioetan intsusak, tente tentagarri zihaurriak.

Zihaurriak izen ugari du euskaraz: andura, akamailua, mausa, zihaurria eta zinaurria behinik bai. Izen asko gauza txarrerako. Ezaguna oso, beraz. Toponimian ere ageri zaigu eta, Mitxelena zenak irekitako bidetik, Zenarrutza, Ziaurri, Ziortza eta antzekoen jatorria argitu daiteke.

Ingalaterran, zailago dute izen batzuen iturria azaltzea. Besteak beste, *danewort* eta *daneblood* izena. *Dane* landarearen gaidosiak eragiten duen beheakoa adierazteko hitz zaharrak daniarra ere esan nahi du. *Walewort* (kanpotar landarea) hitzaren antzekotasunagatik daniarrek ekarritakoa dela diote batzuek. *Blood* hitzak odola esan nahi duenez, udazkenean egiten duen kolore mudantzagatik ote datorren beste batzuek. Daniarrekin izandako gudu tokietan soilik hazten dela beste batzuek, daniarrekin odoleztatutako tokietan. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Etxe barruko landare bat baino gehiagori hostoak likatsu jarri zaizkie, eta landare-zorrien aurkako botika bota arren, berdin jarraitzen dute. Zer egingo diet?

Bestetik, etxe aurrean dugun baratze txiki eta xumean Cáceresetik ekarritako mugurdi bat landatu genuen aspaldi, baita itsatsi ere! Gaur egun fruitu gozo-

gozoak ematen ditu baina... Ikaragarri ugaltzen da inguruan eta umeak zainetatik etengabe kentzen aritu behar izaten dugu. Ba al da erarik landare bakarria uzteko edota hainbeste ez zabaltzeko inguruko bazterretan?

Olga Villa (Larraul)

Kaixo Olga. Hosto likatsuak dituzten landareak ondo miatu. Intsekturen bat izango dute. Etxe barruan zorriak izatea ez da ohikoa, kukurrutxa izatea errazagoa da. Hori lapa txiki baten tankerakoa da. Bere "zirina" da lika hori. Gozoa da eta onddoren batek eraso diezaioke, eta erabat belztu. Kukurrutxa kentzea oso zaila da, baina saiatu: alkoholetan eta ginebran bustitako kotoi batez igurtziz banaka-banaka kendu. Gero eskukada bat osin eta 3-4 zigarreta litro pare bat uretan egun betez

eduki, ur horretan xaboi-kozkorra eskuz igurtzi ura zuritu arte eta landarea, goi eta behe, ondo-ondo busti.

Mugurdiari buruz, garrantzitsuena non jarri erabakitzea izaten da. Sasi bat da eta hala zabaltzeko joera du, etengabe. Beraz beti horrela, inguruan botatzen dituen altsumak kendu eta kendu beste aukerarik ez duzu izango. Mugatzea da irtenbidea. Sustraietara muga baten barruan eutsiz gero altsumak han bakarrik izango dituzu, eta dena landare kloniko handi bat. ■